

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
33n. ZENBAKIA
BAGILLA
- 1980 -**



**ARGANTZU – TREBIÑO'N
(La Puebla de Arganzón - Euzkadi)**

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS

VIZCAINA Aie

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

AFRIKA'RA BEGIRA

Mundu guztiko gizonak, bardintasunean eta alkar maitetasunean batuko garan eguna noiz etorriko ete da? Aberri-rik geienak gosez atzerakuntzan bizi diran artean, ez dago orretarako itxaropen bizirik edo berorik. Baiña itxaropen ori sortzen daben jazoerak be izaten dira gizartean eta orreitariko bat dogu, zalantza barik, Afrika'ko aberrien artean ikusten dogun aurrerapena: Len Europa'tarren menpean egoera larrian ikusten genduzan aberri askok jabetasuna eskuratu dabe eta urte gitxiren barruan Afrika'ko larrualdeen irudia, mapea, guztiz aldatuta agertzen jaku. Munduak, alde orretatik, zuzentasunaren eta bardintasunaren irudi argiagoa lortu dau eta gizadia dan sendia mundu zabalean gauza pozgarria da.

II Jon Paul Aita Santuak oraimtsu ara egin dauan ikustaldiak olako gogorapenak bururatu dauskuz, bateri baiño geiagori.

Lurralde areitan kristiñau-bizitza oraindiño larregi sartu barik dago, near ba'da, aldebrretatik be ba-dator itxaropenerako bide eder bat.

Aita Santua bera, plaza-gizon lez, arrakasta aundikoa dogu eta pentsakera aldetik, poloniar lez, gugandik urrin-samar dagoana, eta Afrika'ko kristiñau areek, eta kristiñau oraindiño ez diran askok, biotz zabalez artu dabe.

* * *

Zertarako joan ete da II Jon Paul inguru areetara? Txaloak artzera, aztertzaile zorrotz batzuk diñoenez?

Ez. Barri Ona argi ta garbi azaltzea izan da bere zeregiña. Mundu barri batera jaioten dagon lurralde aretan Barri Onak dituan argitasunak ezartera. Eta Aita Santuak berotasunaz eta sendo egin dau berba.

Nork ez dau entzun Aita Santu onegaz lengo jokera zarrera sartzeko bideak artu dirala edo «inboluziñoa» etorri dala? Aida edo gai batzutan ba-leiteke orrelan izatea eta bear ba'da, neurri bateraiño bearrezkoa izatea, baiña gizarteak bear dauan jokabide zuzenean kristiñau-eritxietan aurrera doala esan lei, Polonia'n eta komunisten aurrean izan bear zan egoerea gogoratuz.

* * *

Lenago be, VI Paul'ek egin eban Afrika'a ikustaldia eta ango mixiolariantzat onuragarri izan zan. Ordutik gaur arte Barri Ona zabaltzearen zeregiñean aurrerapide ikusgarriak egin dira.

Bigarren ikustaldi au be, arlo orretan, osasungarri izango dalako itxaropena ba-dago.

Afrika'ko jentetza aundiak Aita Santua'gaz alkartuta ikusteak, itxaropenaren argitasuna zabaltzen dau Europa'ra eta gure kristiñau-bizitza zelakoa dan eta norantza doan artertzera bultzatuten gaitu.

* * *

Eleizaren barruan arazo samin batzuk agiri dira; zeozelan esateko, ezkerretik eta eskitik, ertzetatik sortzen diranak, gogoratu Hans Kling eta teologuen edo Lefebvre'ren arazoak eta Aita Santu onek sortu dauan giro barriaren aurrean dagon zalantza aundia.

Baiña munduaren larri-aldi aundi onetan Eleizeagandik izan leike munduak itxaropena. Lur-ikara aundia sortu da gure aldi onetan, baiña, bai eleizan eta bai munduan, gauza baxotxa bere lekuan jarri daitenean eta sortuko dan egoera ta jokabide aldakorrera mundua egokitu daitenean, barrero be egiazen eguzkiak bere izpiak bialduko ditu.

Larri-aldian larri, pozaldian pozik eta aurrerapenetan txaloka, Eleizea munduaren joan-etorrietan gaisozain arretatsu lez, antxe egongo da.

* * *

Ibiltaldi onek gure egoerea egokitu egiten dau: Ba-dago itxaropena, ez doaz gauza guztiak txarto mundu zauritu onetan. Agiri diran ezaugarriak ikusi, entzun eta kontuan artu bear doguz, aurrera-bidea nondik dan argi ikusi dagigun. Olako jazoerak aztergai biurtu bear doguz. Mundua berbizkunde barri bateri itxaroten dagoala dirudi, berbizkunde orretan sartuko al dira gure erritarrak, batez be gure gazte euskaldunak.

TXIROEN JANTOKIA

Bilbao'ko kaleetatik iñoiz ibilli zaree? Baietz uste dot.

Olan ba'da, ikusi dozuez ainbeste eskale, ijito, lanbako langille... eskean.

Eta, bear ba'da, errukia artuta, 5 edo 25 edo 50 pezeta emon dautsezuez. Gero eskeko-taldea batu da zuen inguruan.

Olakoetan, ondo etorriko jatzu Bilbon jan-toki bat ba-dagoala gose diranentzat jakitea. Non? Iralabari'ko Frantzisko'tarrenean.

Ogei urte dirala, duban jaten emoten dauan erakunde batek diardu Bilbo'n eta jantoki au guztiz ezaguna da eskekoen artean. Gose diranak ara joan ezker, lapikoko bero bat lortuko dabe.

1954'ko azillaren 11'n asi zan, aita Basabe ango lekaide-etxearen zuzendariak alkarteari pozez beterik auxe esan eutson: «Milla pezeta dodaz eta oneikaz beantsuentzat jantokia asi geinke».

Lekaideak irriparez artu eben nagusiak esanekoa, baiña onek milla lauerleko areik asikerea izan leitekezela benetan uste eban. Eta ez goan oker.

Eleizan diru-ontzi bat ipiñi eben eta eleiztarrak jakinda, erruki-egintza au euren diru-laguntzaz aurrera ateraten dabe.

«Bost urte daroadaz erakunde onen zuzendari —diñosku aita Imanol Unzurrunzaga'k—, eta aldi guzti onetan edozein tokitan lo egin eta gero ona lapiko beroa jatera datozen eskale asko ezagutzen dodaz. Jakiña, oraingo bizi-maillan ugari-ugari emotea eziñezkoa da, baiña egosaria, indabak, napar-illar edo garbantzuak, txillistak, amandollak, ogi-zati on bategaz beti aurkitzen dabez. *Lenengotan*, sukaldari-zeregiña Pura Iturralde'k egiten eban, baiña au emendik urten zanetik, geuk egiten dogu».

Egunero, berrogei ta amar inguruko taldea etorten da mirari au itxarotera, eta sinistedunen esku zabalari esker, miraria egiten da.

Geienak gizonak dira. Orain Portugal'eko umeai bazkaria emoten gagoz.

* * *

Gura dozue jakin baskaltiarrek zelan diarduen?

Ondo. Bear ba'da, noizik bein, moskortiren bat etorten da, baiña ez dabe emoten buruko miñik, euren artean ba-dakie gauzea atonduten, ez jake ezer eskatzen eta aугaitik ez daukue arazorik sortzen. Ori bai, guztiz susmaberak dira.



Eduardo

Ipuin edo gertaldi bat edesten izten daustazue?

Orain sei edo zazpi urte dirala, eldu zan gizon bat, jarrri zan besteak lez maian eta jan eban. *Egun* bi edo iru geiagotan be biurtu zan eta gero ez zan geiago agertu.

* * *

Garbiketea talde bateko andrak egiten dabe txandaka.

Igandeetan auzoetako gazte batzuk janariak banandu ta otseintzen dabez eta barriketa edo autu-mautuan bazkaltarrekin ekiten dabe, janariaren gaiñera zerbait geiago izan daiten, emoten dana.

Eskekoen asmakizunak jakinda, ikasi ta gogoan artuz, euren arazoak zelan bideratu leikezan agertzen eta ikasten ibiltzen dira.

Jantoki-alboan gaisotegi bat daukagu eta bear-bearrekoak diran osakaiak emoten dautseguz, baita soiñeko erabillien jatzitegi bat be eta soiñekoak ondo garbitu eta erata, zintzo-zontzo banatzen dautsez.

LETONA'k

GERNIKA OIÑAZETSUA

Kondaira aledetik, EuskalERRI guztian Gernika dogu uririk punterengoen.

Beti izan dogu euskaldunok erri sakratua, eta ori bide zala, gure gu Franco'ren la-guntzaille ziran alemandarrak ludian ikusi izan dan egazkin-erasoaldi gogorrenetariko bategaz ezereztuta eta txito birrinduta itzi eben bakezko uri gurgarri au.

Euskal arnasea baiña, nun-nai agiri da eta mitilojiako Fenix egaztia lez, bere errautsetatik len baiño in-dartsuago berbiztu jakun.

Or doguz azken-aldielako Jaur-laritzza nagusia edo Lendakari bari-riaren izendalzeak eta olakoak.

Baiña ba-dagoz Europa'n zear amaikatxu erri martiri, Gernika'ren antzekoak.

* * *

GREZIA'N

Grezia laterrian Gernika lako beste sei erri zihopa aurkitzen dirala diñoskue.

Euretariko bat, ortan ospetsuena, Kalabrytas izena dauana ei da. Gaur egun, ereslari oroen aburuz, «Gre-zia'ko Gernika», ain zuzen.

Alemandarrak 1943 'garrean suntsitu eben eta 12 urtekoetalik asita, 80 urleraiño 1.300 gizonezko su-dunbadaka, otz eta motz, bildur eta lotsa barik, il ebezan.

Azken-aldielako jazokizun iguin-garrienetan, toki berezia daukana, benetan!

Joan dan jorraillean, beste erri marlirietako endore edo alkate jaunak batu ziran berean. Batzar aretan egoan, parte garrantzitsua artzen ebala, Gernika'ko alkate dan gure Dionisio A baitua jauna.

Zelan ez eban berak egoterik izango, Gernika'ko tamalez, erri ondatu-aren artean aitzindari izan ezker?



ERRI ONDATUEN IKURRA

Kalabrylas'en ospatutako batzar au, datorren urtean Gernika'n ospatuko dan batzarraren gertakizun bat izan da.

Emen esku-artu daben alkateak 1981 'garrenko jorraillean Gernika'n egongo dira.

* * *

ITALIA'N

Marciaotto'ko alkateari oIu ia-kon ospakizun oneik egitea.

Marcaibolto, Bolonia'lik urtean dagon 3.000 biztanle inguruko italiar erri txiki bat zan orduan.

Or joalzue ludiko bigarren gudate aretan, 1943 garren urtean, erri on-tan jazorikoa.

Erriko guda-mutillak, partisa-noak, alemandarren eta italiar fas-

zistarren aurkako eraso-aldi batzuk izan ebezan eta andik-emendik eurai ziriz adar-joka ibilliaz, eurak nekatu ondoren, sartu ziran beingo baten alemandarrak errian, lrizkaniza izu-garria egñez.

Al eben erritar guztiak ingurima-rielako mendi-zulo 1a tontor garaie-tan ezkuiaiu ziran. Beste guztiak go-rroto biziz il ebezan.

Ildakoen artean, 1830 notin adin ezbardinekoak zenbala zeitekezan, 500 ume errubakoak illa bi beteta eu-kazenelalik asi 1a andik gorakoak.

Erodes'ek berak be egin ete eban olakorik!

GERNIKA'N

Esan dogunez, eta egungo alkate jauna Dunixi Abaitua burutzat artu urrengo batzarra Gernika'n, doixlarren lerkai-erasoaren 44'garren urleburuan, jorraillaren 26'an izango da.

Marciaotto'ko Dante Cruicci al-kale jaunak diñoskunez, gure lurralde zoragari batzutan eta geienetan, zori Txar onean «belf ikuspegi bietatik lurbira ikusi daikegu eta gudaketak ugariak baiño ugariagoak izan dira».

Lurbira osoa, bere kondairan zear begizatzen ba'dogu, 14 milla guda or nun-bait izan doguz.

Ildakoak, edeslarien ustez, iru mi-lla milloitik gora, gitxienez.

Gudak egiteko zioak oneik: Zen egoera larriak, norbe-rekeriak, arrokeria, eta guztitariko griña Txarrak.

Olan ba, ain erasoak artu doguzan erriok alkartu-bearra daukagu.

Elburua, bein eta betiko mundu guztitik gudak eta asarre mingotsak aldentzea, ondorengientzat ludi obea itzi dagigun.

ARREGI'tar Josu'k

ERLIJIÑO

Goiria

AURRERAPENEAN

Aurrerapen aundiak egin dauz gure gizaldiak bere bi-dean batez be azkeneko urteotan.

Ara: izadiko indarrak azpiratuta, industria ugarituz doa alde orotan. Euzkadin ez gitxien. Jakintzak eun bider geitu dauz gizonaren almenak.

Eta erlijiñoa? Aurrerapen au kaltegarri izango ete jako erlijiñoari? Zer jazoko ete da beragaz atseginkeri, irabazpide ta asmakeri-iskanbilla-tartean? Guztiz aienatuko ete da? Guztiz galduko? Ez egitan. Ez da jausiko ezilkorra baita.

Alde guztietan eta une guztietan dagigu topo erlijiñoagaz. Beti lez gaur be lenengo jakinaia da. Alde orotan eta ago danetan entzuten da bere izena.

Bere izena darabille egunerokoak, aldizkariak. Bere izena jan eta edantegietan. Bardin batzarretan, lantegietan Zergaitik? Gizadiak bere soifnean, bere izatean daroalako.

JAKINTZAN

Biotzak eta gizarteak bere bearra dabe. Jarri aurrerapena besterik ez daukan erri bat. Negargarria! Jakintza gauza ona da, garrantzitsua, bearrezkoa, baiña ez da naiko.

Gaurko gizarteak jainkotxu egin dau jakintza. Bera-gaz ebatsi gura leukez munduko auzi guztiak.

Amets! Gizonak eta gizarteak ez dabe naiko jakintzagaz. Bearrezko dabe erlijiñoa. Onela mintzataen da Montesquieu: «Erljiñoa ezbaian jartzea norberaren utsa da ta bere aurka joatea barriz, gizartearen aurka joatea».

Ona gizon argi batzuen iritxiak.

* * *

JAINKO BARIK

Jaungoikozko gurtza gogoz artzea Laterriaren aunditasunaren ezaugarri ziarra ba'da, erlijiñoa ezestea bere ondapen ziarra da (Makiabelo).

Sinisterik gabekoak zuzentzen daben Jainkorik gabeko gizartea, deabruaren menpean jarritako inpernuko gizartea besterik ez da (Voltaire).

* * *

GIZARTEAN

Erljiñoa indartzen alegindu naz agintari nazanetik; gizartearen oiñarria ta sustraia beragan aurkitu dodaz (Napoleon). Gauza eziña, amets utsa da izan be erlijiñorik gabeko erria. Gizartearen izakerak berak eskatzen dau. Ona Mussolini'ren itzak: «Erriarentzat erlijiñoa bearbearrezkoa dala uste dot».

Eta Hartsehni'ren besteok: «Bai, jaunak; erlijiñoa bearrezkoa da. Sinismenik eta erlijiñorik gabeko ejerzitua, gu-darostea, galduta dago; galduta guzartea ta galduta aberria».

«Mundua ezer- ez biurtuko litzake» —dino Tiers'ek.

* * *

MAILLETAN

Itz eder oneik itxi ditu Gibier idazle zorrotzak:

«Onoimena erlijiñoagaz indartu egiten da. Iñon elegoke sinismen eta lege gabeko gizonik, ez gaiztorik, ez moskorrik, ez lapurrik, ez alperrik, ez lizunik bere menpean biziko ba'gfiña.

Senar-emazte zintzoak, seme-alaba lotsorak, langille zurrak, aberats ongilleak eta txiro-pobre jasatuak eta sapokeririk gabeko menpekoak eta goikoak ikusiko gendukez alde guztietan. Gizarte-auzia ebatsita legoke.

EZIKETAN

Erljiñaren etsai-arerio amorratua zan Diderot jakintsuak auxe idatzi eban amazpigarren mendean:

«Erljiñoa ikastea bearbearrekoa jako gaztediari. Kistar-ikasbidea bezelako liburuTik ez dot aurkitu naizta alegiñak egin nire alabatxoa ondo azteko. Azkera onak erlijiñoa dau oiñarritzat.

* * *

BAKEAN

Bearnearrekoa da beraz erlijiñoa gizadiaren onerako. Bearbearrekoa gizartean bakea ta zoriona ta zuzenbidea izan daitezcan.

Aldi guztietako gizonik prestuenak aitortu dabe au. Zerura ta itxasora begira egoan bein Napoleon Santa Elena ugarteko aitz batetik. Bere garaipenak gogoratzean esan eban:

«Erriak H eta joan doaz, bakaulkiak ausi, aundiak aienatu. Jesukristoren erlijiñoa bakarrik dago zutik».

* * *

EUZKADI'N

Au olan-da diñogu: erlijiñoak bakarrik salbatuko dau gizona, mundua. Euskalerrri aundia gura ba'dogu ez gaitzen ibilli mamin-mamiñean daroana berari kentzen. Eutsi dagiogun erlijiñari. Erljiñoa kentzea bere kaltez izango da.

NAPARROA ETA TREBIÑO

(Anziñako eretxi bi)

Naparroa Euzkadi dan ala ez, Trebiño Araba ala Burgos dan, zarraparra txikiak ez dira sortu azken aldio-tan. Trebiñotarren eretxia eta guraria naiko argirik egertu izan dira; Arabartzat dagoz eta arabar izan nai dabe. Naparroako aizeak nastuago dabil. «Laurak bat» egitea eta batera jokatzeari aspaldiko jokabidea eta guraria dira. Baiña tartean politika, edo obeto esanda, politikeria sartzen danean, orduan dira kontuak eta nas-teak.

Naparroa eta Gipuzkoa

Politikeri orrek nastu eta lorrindu bako aldi baten murgildu gaitez, euskalduntasunak Gipuzkoa'n eta Naparroa'n zelango anaitasun-giroa sortu eban ikusteko.

Orain irureundaka urte jazoriko gauzak dira, Erreteriko kaputxinoak zirala-ta jazoak, izan be.

Orduan, euskalduntasun batek al-kartuta ikusiko ditugu, bai Gipuzkoako agintariak, bai Naparroakoak. Eretxi eta sentiera berekoak dira kaputxinoak, bai giputzak eta bai naparrak, eta eurokaz batera, alde bateko eta besteko agintariak autorpen sutsu au egiten dabe: biak, giputzak eta naparrak, izkuntzaz, oituraz eta jatorrizko izatez, anaiak dirala, al-karturik bizitzea berezkoa dabela.

Barruti bat

Ona nondik eta nora sortu zan auzi txiki au. Kaputxinoen prailletzea agertu barritoxa zan kristiñau-errian. Prailleok Errenderi'ra eldu ziranean, 1612gn urtea da. Sei urte lenagotik dagoz Iruña zarrean. Laster izango da praille-etxe barri mordo: Tudela, Zintruenigo, Los Arcos, Peralta, Bi-ana. Guztitara, Errenderi'koagaz, zazpi-zortzi. Guztiak, Barruti baten, Aragoakoaren mende. Kaputxinoak Cataluñan aldetik etorri dira. Cataluñan'koak euren praille-barrutia egin dabe; aragoarrak, Cataluñan itxita, euren. Eta ona orain, naparren aldia.

Eurak euretara, euren nagusien men-pean jarrea lortu nai dabe, eta bai lortu be.

Errenderiko prailletxeagaz zer jazo da? Aragoa'koakaz, ala Gaztelan'koakaz bat eginda gelditu bearko eta dau? Naparrakaz geldituko da.

A l-kartasuna, euskalduntasuna

Emen agertzen da orduan giputz-naparren anaitasuna, al-kartasuna. Euskalduntasuna dabe lokarri.



Argañzu (La Puebla de Arganzon) Trebiño'ko erri bat dogu. Trebiflo konlerria izan da eta Araba-barruan egon arren, gaur, Burgos'koa da. Euskalerrriak berea dau eta berelzal eskatzen dau.

ERRIGINTZA

Batasuna lorzeko, praile ta erri-gizon, batzuk eta besteak jo dabe gora. Ez giputzak, ez naparrak ez dabe nai, Errenderiko etxea Aragoakoen ez Gaztelakoen mende gelditzerik.

Naparrak eta giputzak ez dabe banandu nai, praille-barruti bat egin nai dabe.

Eta alde bietatik errazoi bardiñak entzuten dira: batzuk eta besteak, izkuntzaz, oituraz bat dirala, alkarren auzoko dirala, euskaldunak dirala.

Beotibar'ko burrukea

Errenderiarrak itz egiten eban gogorren. Baten batek ez eban zurrumurrua zabaldu giputzak naiago ebe-la gaztelarren menpean egon, naparrenean baiño? Errenderi-terrak ez dira mutu geldituko:

«Emen, erantzungo dabe, inguru guztia euskalduna da: Lezo, Oiarzun, Alza, Irun, Ondarrabi, dana euskalduna, eta emen euskaldunak, napar edo giputzak bear ditugu. Aragoarrak eta gaztelarrak ona sartzea lez izango litzake».

Une atan ez da ageri ez giputzen ez naparren Beotibar'ko «pelea» ospetsuaren gomutarik, ez giputzak iñoz «gaztelarren etxean» sartu ziralakorik.

Une atan, erriaren agotik eta biotzetik, bai giputzen eta naparrenetik, euskalduntasunak itz eta ots egin eban.

Politika —usaiñekorik ezer gomutatze koan, auxe besterik ez dabe gogoratuko: Giputzak eleizaz Iruñe'ko eleiz-barrutikoak dirala, eta Iruñe'ko «Capitan General» zanaren agintepan egoala Gipuzkoa osoa. Berez, politikaz be, batzuk eta besteak ez egozan ain urrin.

Errenderiko prailletxea Naparroa'ko praille-barrutian gelditu zan. Euskalduntasunak irabazi eban auzia. XVIIgn. gizaldian jazo zan ori, 1964-1965 bitartean.

TREBIÑO EUSKALERRI

Goazen orain Araba aldera, Santa Teresaren egunetara, Errenderiko kaputxinoen goraberak jazo baiño laro-gei bat urte lenagora.

Avila'ko moja andia Euskalerrira urreratzen asita dago. Gure artean moja-etxeen bat edo beste eregiteko asmorik be ba-darabil, Orduña'n eta Gazteiz'en. Asmook uts egin eben.

Burgos'eraño eldu zan, baiña andik aurrerago ez eban egingo. Burgos'en. orraitio, euskaldun bi izan ditu laguntzaille oso eskuzabaleko: biak andra-gizonak, Tolosa-M untxaraztar-
rak.

Eta beste irugarren bat beragaz ekarri dau, iñoz konfessore euki daua-na, berrogeta bat urteko praille karmeldarra.

Nor da beraru, eta nongoa da?

Praille euskalduna

Praille au aitatzen dabenean, aldi atako paper zarrak sarritan aitatzen dabe beraren jatorria; euskalduna dala («vizcaino» dala), esaten dabe.

Itz orregaz orduko erdaldunak badakigu zer esan nai eben. Ez eben esan gura Bizkai'ko semea zanik, euskalduna zala. Izan eitekean bizkaitarra, baiña bai arabarra, giputza naiz naparra be. Nongoa zan Santa Teresa'ren lagun ori, Pedro izeneko praille ori?

TREBIÑOTARRA

Praille orrek, praille-sartukeran, bere ezaupidea emon ebanean, bere jaioterria izentau ebanean, Puebla de Arganzon erriaren izena emon eban. Ori naikoa zan. Geiagokoen bearrik ez euken, gaiñerakoa ba-ekien izen-artzailleak, praile barriari «vizcaino» esateko.

Prailleak berak be ez eban ori ukatu ez orduan, ez geroago. Santa Teresa'gaz batera Burgos'tik ebillen egunetan ez jakon burura etorri Burgos'tarra zanik; ez eban ezelango susmorik artu, Burgos'tarrak bere erriki-deak zituanik. Ez ekian orrenbeste. Ez-jakin orretatik atarateko be, ez eukan orduan UCEDEko politikakorik Burgos en.

Trebiñotar eta euskaldun

Aldi atako erdaldunen luman «vizcaino» itz orregaz Euskalerriko seme utsa ez eben, nonbait, aitatzen, orrez gaiñera, izkuntzaz euskalduna zana, euskeraz egiten ebana be bai.

Orrelangoa, zan, gure Trebiñotarra be.


Erdaldun jatorrak laster antz artu eutsoen trebiñotar aren euskalduntasunari, aren baba-zorro usaiñari eta orregaitik izentau eben orrela.

Eta gure Pedro prattle au (Kintanilla Domaika abizenez), euskaldun jatorra izatea ez dogu arritzekotzat jo bear. Gizaldi atan, Gazteiz ingurua oso euskalduna zan, eta Arganzon ez dago Gazteiz'tik urrin. Eta umetan azitako umeak prailleen soiñeko soiñeko-eske Pastrana-ra joan zanean. ba-eroian, antza, umetako babazorro usaintxoren bat, eta gaztelarrak bai laster igarri be, «vizcaino» zala, au da, euskalduna.

Gaurko egunotan bizi izan ba'litz, gauza jakintzat emon gainke Araba'ren alde jokatuko ebala, Trebiño'ko eta Arganzon'go alkateen lez, Burgos'tarren bildur barik. Eta auzi au orduan sortu izan ba'litz, Burgos'tarrak eurak be gaurko gogo txarrik ez eben erakutsiko, nik, uste, baktxari berea emoteko: Araba'ri Arabarrena.

L. AKESOLO

TXINDOR GAISOA



Negu gogorra aurten
mendi ta erritan
edurra mara mara
ia gau guztitan

Txindor papar gorria
lotan zugatzean
eguna argitzean
inguru edurretan

Pio pio larriak
txoritxuarenak
otz eta gose dala
artu dau dardarak

Edur izara zurik
estaldu dau dana
nora joan ez dakilla
txindortxu laztana

Nun berotu aintxuak
nun aurki kokoak?
II bearko ete dau
kantari bigunak?

Azkenez ikusten dau
baserri etxea
tellatu egal azpin
edurrik ezea

Egoak zabaldurik
bertara egara
kokotxu gozoakaz
kolko betetera

Baña etxe artako
mutiko koskorrek
sare txiki bategaz
lotu txori egoak

Mutil koskor biurra
zertan abil zoro?
olako txindor polit
apal apaloro
ilteko bide txarran
ipiñi dok, gaixo(

Jaunak egindako dok
txoritxu pozgarri
izan daiten guretzat
abestiz pozgarri

Zaindu egik epeltan
eure etxe barruan
egara *egin dagin*
edur urtutzean

Ikusiko dok gero
udabarri eltzean
txorrotxioka alai
baratz ta zelaitan

GALLASTEGI'K

Emoiguzu gaur: Deuntasun era barria

*Zintzo Jaungoikua'rentzat
zintzo errietzako
gaur biar dogu artzaña
baita euzkaldun orok.
Jaungoikuaren izenian
izan zaitez errizen abotsa:
maite ele zarra, maite ama lurra
ta euzko lagiak, maite azkatasuna.
Zu, geure artzaña! Zu geure laguna!*

*Izan biar gara kistau to abertzale
ta lagunakaz lan Euzkadi aldez.
Berbiztu enda zarra ta, geure ekanduak,
geure eresiak, geure ele kutuna.
Jaungoikua gan geure itxaropena.
Ito biotzian, gorroto-kemenak!
Lagunak burrukan? Ezkara aldenduko,
bell garaituten txarkerin-ordañak.
Lagundu egiskuzu, onetan, artzañal*

UTARSUS

GAR IZI MA

Jauna gurtzeko sasoi guztiak
doguz oso egokiak,
baiña soirik egokienak
Garizima'ko sasoiak;
guk kristinauok sinistredunok
eukiaz buru argiak,
esan bear gaizka gaitula
gure JAUN SALBATZAILLIAK.

Jesus Jainkoak Bizia emon
Gizadia gaizkatzeko,
ta Gizadia gogoratzen ez
Bera gogoz maitatzeko;
gu ez al gara buru gogorrek
dan lez ez gogoratzeke,
ta BIDEA BIZIA EGIA
Nor dogun ez jakitzeko?

Guk jakin arren Nok gaizka gaitun
gogotsu ez Du maitatzen;
bestela laster garizimatan
Elizak dira betetzen;
baiña aspaldiz Jainko-Elizak
urri itun gauz ikusten,
tamalgaria bane-benetan
orain daudena gertatzen.

Bekaiskeri ta arrotasuna
daukaguz gure artian,
Jainkoa gurtzen orrexegaitik
ez gara gartzen orrexegaitik
ez gara jartzen bidian;
bekaiskeri ta arrokeriak
debekutzen dau eitian,
pentsa dagigun una ontatik
zelan jokatu Ludian.

AZPEITIA'tar Gotzon

*Gerediaga'ko Kurutze deuna, Duran-
goko fedearen ezaugarria, gure asa-
ben esku trebeak arri ederrez eta sen-
doz landua, bosteun urtetan euskal-
dunak gurtua bere ta Euzkadi'ren
areioak lerkatuz eta gorrotoz lurrera-
tua, zaindu egizu gure Erri zanpatua,
indartu gure fede zauritua.
(1980-V-16)*

¡TO! ¡TXILLARDEGI EUSKALTZAINDIAREKIN ASARRE...!

Armenti'ko Prudentzi Deunaren pesta-giroan, Euskararen aldeko jai-egun bat ospatu zuten «el batua» zaleak Gazteitz'en. Adi ezazu ondo, irakurle: EuskAren aldeko jai-egun bat; ez Euskeraren aldekoa.

¿EuskAra zer dan? Bd..., Bizkaieraren tanttarik ere gabe, Beenaparro'ko izkerari Giputz-berba batzuk, eta Españ'ko ta Frantzi'ko erderetatik pilloka artutako berbak naasiaz lau jauntxo biurrik asmatu duten H'ez jositako izkera mordollo ori da EuskAra.

Txillardegi izan zan berbaketa parregarri orren asmazalleetako bat. Eta azkeneko amar urte auetan Euskaltzaindia izan da —eta da—, gure betiko Euskera zapalduta, «el batua» zatar ori indarrez ezarri naiean dabilena. Orain, berriaz, ba dirudi Txillardegi ta Euskaltzaindia alkarrekin asarretu-edo dirala. ¡«Cosas veredes D. Pero!»i

Zure kumenarekin Irakurle also-bide balar& sartu nai nuke orain.

Oteiza irudigille edo eskultore ospetsuaren entzutea izango duzu noski. «El batua»ren etsaia dugu Oteiza Jauna. Bere adiskide batek kontatu zidanez, «EuskAra esateko, aoa geiegi iriki bearrean arkitzen naiz —esaten omen du Oteiza'k—, eta ao-zabalketa zakar ori mingarri zait; eta... parregarri ere bai».

Ipar-Euzkadi'n ez al da ba EuskAra esaten?, itaunduko didazu, irakurle.

—Bai zera! Ipar-Euzkadiko txoko txiki-txiki batean bakarrrik esaten da EuskAra. Euskalerrri guztian ez dira !aurreun baño askox pertsona geiago izango EuskAra esaten dutenak. Irakurle!: Eta iñork erabiltzen ez duan izen bat indarrez sartu nai izatea, lez al da parregarri, eta naskagarri? Ba, ori egiten ari da EuskaltzaindiaTCosas veredes D. Pero!».

Beste gauza bat ere kontatu zidan Oteiza'ren adiskide arek. Oteiza'k esaten omen du h'ak fabrika baten, ola baten, itxura dula, «bere tximini ta guzti»; eta Euskeraren barrura, munduan zan ontograil edo idazkerarik garbiena zikintzera, «a polucíonar»!, sartu dala. Bd..., Euskeran izki (letra) zikintza!le ori sartzen, Euskaltzaindia bera ari da: Azkue bizkaitarrak eta Campton naparrak Euskeraren garbitasuna zaintzeko sortu zuten Euskaltzaindia! «i Cosas veredes D. Pero!».

Ta, Txillardegi ta Euskaltzaindia alkarren artean asaretu egin dirala diozu?, ez dira beti ezkongai maitetsu !ez bata bestearekin ibilli?

Bai irakule, baña..., andregar'ak kalabazak eman dizkio oraingoan senargaiari. Txillardegi'k Euskerazain osoa izan nai zuan. Ez du gura zuanik lortu; bear aiña autarki edo boto jaso ez ditulako.

EuskAren Gazteitz'ko jialdi ontan izanda Txillardegi.

«Arzu! INola ez zera Euskerazain Osoa egiña izan?», galdetu diote albistelar'ek.

«Estan pasando cosas muy raras en Euskaltzaindia», erantzun die Txillardegi'k. «Gauza itxusixamarrak gertatzen ari dira Euskaltzaindian».

To! —oiu egin dut nik itz oiek ikustean—, «jCosas veredes D. Pero!». Euskaltzaindian gauza arrigarriak, gauza «raruak» gertatzen dirala? Baña azkeneko amar urte auetan, Euskaltzaindia «el batua»ren alde jarri zan ezker, gauza «dezenterik» gertatu al dut Euskaltzaindian?

«El batua» ontzat artua izatea bera ez al zan gauza «ratua» izan?; eta onartua izan zan ere?; eta ontzat arrezteko Mitxelena'k erabili zuan arrazoia?; eta ipartarren izenean h'rik ez arteko eskatzen zuan Laffite'ri entzungor egitea?; eta Lekuona Lendaritzat'k jaurtitzea?; eta orduan Lekuona'k «ad experimentum», «probarako», ontzat artu bear izan zuana, gero Villasante'k legezkoa egiña izan balitz bezela indarrez ezarri nai izatea?, eta, eta, eta...

Ez al dira oiek danak gauza «raruak»? (Euskaltzaindiak «el Batua» legezko egiteko egindako Batzarrari buruz, beste egun batean esango dizut zer bait) «iCosas veredes D. Mendo!»

Esakizun ori Muñoz Seca'k bere «La Venganza de Don Mendo» edo «On Mendo'ren Apentza»n idatzia dira. D. Mendo'ren bi etsai, D. Pero eta D. Muñoz, iizunkerian emagalduta bat arrapatzera dijoaz. Eta emalgaldutaren ordex Erregiña arrapatzen dute an. Orduan esaten diote alkarri: «jCosas veredes D. Pero!», «jCosas veredes D. Muñoz». Nik Txillardegi'ren ateraldia ikustean esan nuana: «jCosas veredes D. Pero!» Txillardegi Euskaltzaindiaren aurka? Biarko egunean bateren batek «Txillardegi'ren Apentza» idatzi bearko ote du?

Umore uenez bukatzeko utzi eidazu, irakurle, ostera albo-bidetik jotzen. Muñoz Seca, rri-antzerti-idazlea zan. Ona gañera. «Gorriak» í! zuten, gudatekoan, Madrid'en. !!!-aurretik, au utzi omen zuan espetxeko gelaren ormetan idatzia: «Me quitareis la mujer, la vida y todo !o que tengo; pero el mido zquien me lo quita?». Kenduko didazute emaztea, eta bizia, eta dudun guztia; baña bildurra, nork kenduko dii bildurra?

"BIZKAITZ" EUSKEREDER

unibertsitateko ikasle (Lenengo Saria)

EUSKERAZALEAK IPUIN-SARIKETA

1980'garren urteko orrillaren 16'garren egunean, Bilbo'ko Koin de Larreategi kalearen 14'garren zenbakian, EUSKERAZALEAK Taldearen gizarte-etxean alkartu dira IPUIN-SARIKETA'rako epai-maikoak eta, guztiak eta bakoitza aztertu ondoren auxe ebatzi dabe:

LENENGO SARIA: 25.000 pezeta.

Idazlea: Juan Manuel Etxebarria Ayesta.

Ipuiña: "BIZKAITZ"

BIGARREN SARIA: 15.000 pezeta.

Idazlea: Estonba'tar Manuel.

Ipuiña: MAMURRAK.

IRUGARREN SARIA: 10.000.

Idazlea: B. Bilbao'tar Nikola.

Ipuiña: GUDA BALTZAREN ONDORENAK.

Sarituai zorionak, eta sari barik geratu diranai urrengorako itzaropena.

— EUSKERAZALEAK —

Euskalerriko Bizkaieramendiren nagaletan, aritz, pago, lora eta bedar berde artean, usain gozoz, aize garbiz beterik eta eguzki begian dagon EUSKEREDER deritxon baserrian bizi da gure BIZKAITZ bere euskaltasun eta zintotasunez beteko gurasoekin, pozaren pozez, bitsetan, eurak euretara beti lanean, beti euskeraz, beti pozik Euskal Lurra eta Zeruaren bitartean beste baserri eta baserr koekaz erriko poza izanik.

Baiña erria erri eta mundua mundu, dana doa aurrera eta gure BIZKAITZ aziz-aziz doaku eta eskoledadera eldu da.

Irailaren egun Sean sargori baten asi da BIZKAITZ eskolara. Barria da, danak berari begira, geienak erderaz... eta bera amaren es kutik zer egin ez zer pentsatu ez dakiala, ikaraturik, gorri-gorri eta begiak lausotur k.

Asi ziran eskolak eta... t ra ba!... Erderaz ez daki baiña euskal joskerarekin erdera egin arren, badoa gure mut la dana ez bada ere erdal as gnaturen barri artzen, asiak egiña dirudiala gogoratu, baiña alan eta guztiz ere goibel eta triste dago gure BIZKAITZ. Zer ete da? Lagunak baditu, erderan aurrerapen andia egin dau, materrrat kat ondo daroaz...

BIZKAITZ, zergaitik zatoz negarrez eskolatik? Nok egin dau-tsu?

Ba... ba.... Nik beti egiten dot neuk dak dan euskera eta nire es kolako lagunek ez dakie nire antzera itz egiten eta euskerazko azter keta ipini daukue eta... bestek aprobatu eta nik suspend tu... —negrerrez dario—...

Ez arduratu seme, ez b lduрту, beste notak legez euskera ere ata rako dozu; badak zu ba, gure erriko eta etxeko euskera ez dala ona esaten dabe ta... beste ori ikasi bear dala baiño ez da entzuten gaur..., trankil egon, gu gurasook zaartuz ere bagoaz eta ezin dogu euskera barri eta ona dala d rioen ori ikasi baiña zuk ikasiko dozu....

Aitak kortat k entzun dauz negarrak eta korta-bearrak egin ondo ren gora igon eta ama-semeak ikusten dauzenez bad notso B zka tz :

—Zer ipini dauksue azterketan ba?

Bizkaitzek negar malkoak karterako liburu artera dar'ola ozta-ozta atara dau euskerazko azterketa... azterketadun eskua goian baiña begiak lurra jotan ditularik.

Aita eta ama, biak, asi dira azterketa irakurtzen, eta irakurri, ira kurri dabe baiña ulertu ia ezer ere ez.

Au da euskera modua/—esan eutsen aitak amari—: besterik ez dogu egin gure aldian eta euskera barri dalako au ezin ulertu.Jak ña, gure euskerea ez dala ona esaten dabe ta; zer egingo dogu ba! : erdera

rik jakin ez eta orain gure euskera ere... olakorik! batek badaki Eus kalerrian zer ikusi bear dogun...

Egunak joan, egunak elorri, Bizkaitz badoa euskera barri ori ika-siz baina ern barrí orretan ezin dau aorik askatu, ez dautso barrutik urtetzen, derrigorrez egiten dau aprobazteko... Etxean bai pozik guraso eta auzokoekaz barruko eta betiko euskera egiten; berez-berez egi-ten dau egin ere, zaarrekaz berorika, bera baiño nagus'agoekaz zuka eta lagunekin ñtano.

Joanean joanean Bizkaitz' aurpegia bizarrez jantzi jako eta Uni joateko erabagia artu dau, eta euskera barri orren betiko bildurtxua barrutik guztiz kendu barik, Euskal Filologian matr'kulatu da.

Asi da Unibertsitatean ela ikusten ditu ainbat neska-mutil miñean ar barik euskera barri orretan itz egiten, eta badiño berekitan:

—((Euskera barri au jakin badakit beste bat e

—((Euskera barri au jakin badakit eta egin ere egingo neunke bai-ña au da izatekoa!, euskera orretan neu barik beste bat nazala uste dot...»

Baiña, egunak luzeak dira eta asteak luzeago eta urteak zertan esanik ere ez... B zka tzen kutsokoak euskera sakontzen asi dira eta irakasle batzuk as jakiez euskalkiak gora eta euskalkiak beera... eta beste batzuk zorab oturik, ulertu ezinda dabilzan artean, Bizkaitz eta bere antzera dagozan beste bi edo iru kara barik dana ulertzen dabe la... Au poza!

Gure Bizkaitz goibelarirribarra elorri jako ezpainetara eta bere begiak zabaldu dira; beste bat dala dirudi, bera ez dala uste izan dau baiñim bera da, berbera, betiko euskaldun diran aita eta amaren Eus

—Ama, arte!... Badakizue?

—Zer?

—Euskera ona nik ikasi dodana dala ta egon zaree baiña zuok as koz geiago dakizue. Nil zuen euskera orraztuten bakarrik ikasi dot, ulea zuena da eta asko ta ona dozue gaiñera...

Bai, euskera zabaldu eta ugaritu bear dogu danok itz egin eta ulertzeko baiña niretzat EUSKEREDER baserria da, gurasoak ira kasle diralarik, oinarrizko UNIBERTSITATEA.

Euskera da lapurtera

baita ere gipuzkera

Bizkaiera be besteak legez

beti betiko euskera.

Juan Manuel ETXEBARRIA

MAMURRAK

(2n saria)

Mamurrak gizonai euren lan arrigarrietan lagundu of dautseen aide txiki-txikiak dira.

Praka gorriak daukez soiñean. Ori dala-ta, Praka-gorri deitzen dautsee Bizkaia'n.

Orraztokia da euren bizilekuai, eta lau sar-zen dira alako bakotxean. Eta orraztokiaren ao-zotza zabalz_enjakeanean, biraka-biraka as-ten jakoz euren jaubeari buru-gaiñean, eta deadar batean itaunka: —Eta orain zer...? Zer geinke orain...?

Eta une ta beingo batean egiten dautsoez agindutako guztiak, ikaragarrienak ba' dira be.

LIZARDI'KO PERU

Artxanda'ko mendian dago Lizardi. Oso baserri ederra. An egoan Bizkaia'ko idi-parerik ospetsuena. Eta an bizi zan Bizkaia'ko proba-laririk onena be.

Ez ziran idi andiak. Baiña, bai bizkorrak! Ez zan Peru be gizon andi. Baiña, berak irabazten ebazan idi-proba guztiak.

Ez eban ordu asko emoten bere baserrian. Erriz-erri ta azokaz --azoka ebillen beti; ta bera zan iñungo dema-saltsa guztien burrun-zali.

LIZARDI'KO MARI

Bestelakoa zan aren emazte Mari. Sekula-ko ortu ederra eukan etxean. Eta egunero-egunero joian Bilboko azokara bere astotxoa ortuariz zamatuta.

Etxetik urten, ta bidean batzen jakozan etxeko andreak, eta bereala asten zirika:

Ez eukanan ik ibilbide oneetan ibilli be-rik...!

Zer, bada...?

Ez zagoze Lizardi orretan, diruaren pre-miñan...

Ezet...?

Gura-aña diru irabazten jonan ire Peru'k bere idiakaz.

—Bai...?

Lau irabazi ta bost galdu...!

—Galdu...? Iñoz galdu al jonan, ba, Peru'k idi-probarik...?

—Probetan, ez...; parrandan, parrandan galtzen dauz or'ek irabazitakoak eta bost.

EZTABAIDAICA

Asarre artu eban, eguerdi batean, Mari'k bere senar Peru:

—Ni erabat jota etorri Bilbo'tik; eta sekula-bedarra solan oraindino. Zetan ibilli az goiz guztian?

—Ez jonat nik beti zarrapastaka i bezela ihilli bearrik...!

—Zer..., mamurrak al daukazak, ala...?

—Bai, ba! Zelan irabazi, osterantzean, neu-re idi-proba guztiok?

—Ziñetan abil, Peru...?

—Ziñetan, Mari!

—Ai, Peru, Peru...! Deabrukeriak dozak orreek!

—Deabrukeri...? Bai zera! Abadeak be ba-daukezanan-eta!

—Abadeak...? Eta zertarako...?

—Zertarako? Eliza barria egin gura eban, bein, eta mamurrai aginduta, artarako bear eban arri guztia ekarri eutsoen, beingo ba-tean.

—Ba..., ez jagok gurean etxeren bearrik.

—Madrid'era eroateko eskatu eutsoen, bein, bere neskameak. Eta an egozanan biok Jesus amenean.

—Ori bai...; polita dok ori.

—Polita..., zer?

—Madrid ori, ba... Oba joat, milla bidar oba bai, Madrid'eko kaleetan egurastu. Bilbo orretan porru ta berakatzak saltzen jardun baiño. Peru, artu eure mamurrak eta goazen Madrid'era.

—Ez jonat nik an iñongo eginbearrik, ba...

—Ezet...? Eta ango dendak, Peru..., eta ango jauregi. plaza ta zezenketak...!

—Zezenketak...? Idi-probak bear jozanat nik. idi-probak...

MAMURRAK ERRE

Asarre oeratu zan Mari, gau atan Ona zer iñoan bere kautan:

—Ni neuri Madrid'eko zezen-joko orreek eragotzi. ta i cu idi-proba zakarraz gaillendu-ta...? Ago, ago...!

Eta jagi oetik isil-isillik. Jatsi kortara. Buztar-estalkira urreratu. Aren ardi-narrupean arakatu, ta ona... alameneko mamur-orraztokia.

Artu arreta andiaz, ta eskaratzera daroa eskutan gorderik. Eta su aurrean otoizlari apur batean egon ondoren, bertora jaurtiten dau mirarizko orraztokia, asarre biziz.

Jaurti baeban jaurti..., an galdu ziran mamur koitadoak, kirri ta karra negarrez, erre-txiñezkoak bailiran.

ARTXANDA'N

Gutziz aldatu zan, arrezkero, Lizardi'ne-koen bizi-modua.

Peru begi-argi, ta Mari begi-illun ba-egozan len; osterantzera, andik aurrera: Mari begi-argi, ta begi-illun Peru. Ez luzaroko. Etorri zan Doniane-gaua. Ta Artxanda'ra abiatu zan Peru orraztoki barria besapean. Eta aratu zanean, orraztokia artu, ta sasi artean zabaldu eban.

Eta an asi zan bera, bien bitartean, oiñutsik batera ta bestera, soloetako iruntzetan. Goi-zaldera etorri, ta etxera biurtu zan Peru mamur barriz beteriko orraztokiagaz.

Etxera biurtu, ba, ta an jarraitu eban, gero-ra be, bere idi argal eta txikiakaz inguruko idi-probak guztiak irabazten.

ESTONBA'tar Manuel

GU DA BAL TZAREN ONDORE- NAK

"Umezurtz betirako" (3n saria)

Ba-ziran ogei bat urte guda baltz ikaragarria amaitu zala, ogetabat inguru Euzkadi k maiteen dauan Gernika uri polita doixarren egazkin madarikatuak, italiar eta Franco tarren indar eta txaloak lagun zituela, apurtuta eta erdi autseginda itzi ebenetik.

1958 gren. urteko udabarria zan, ain zuzen be Loreil edo Maiatza ren lenengo eguna.

Bilbo tik Bermeo ra goizeko orduetan ibilbidea edo joan-etorria egiten dauan autobusak, Zornotza errian ogeta sei edo zazpi urte inguru mutil gazte bat artu eban bidezten artean: «Muxika raino eskatu eban, euskeraz, bere txartela, diru-batzallea ordainaren billa urreratu jakonean.

«Hable usted en español», esan eutsan «Kobradore» orrek txartel txoa eskuan ipiñaz, «son ocho pesetas».

Eldu zan azkenean Muxika raino autobusaundi ori; jatsi zan beera gure mutil gazte ori be Eskuturrean eukan ordulari edo erlojutxo polita ri begirakada bat egin eutsan. Goizeko amaikak baino etziran oindiño.

Zuzen-zuzen illerri edo kanposanturako bidea artu eban, aurrean aurkitu eban gizon bateri toki ori nun egoan itandu ondoren.

Miñutu batzuk geroago bertara eldu zanean, sartu-aurretik txapela erantzi eban eta buru-utsik barruratu zan biotza pil-pil ebal.

Sartu ta bertan illobi guztiei begira ta begira asi zan, bere sendiko ren baten izena aurkitu-nairik.

Orretan artegatsu ebillela, bera baino leenago eldu zan lagun bat aurkitu eban illobi txiki eta apal baten aurrean belauinak lurrean josita, negar-zotinka otoi bero beroan nunbait.

Lora txorta polit bat eukan eskuetan, oindiño illobi gainean ipiñi barik, baiña agiri zanez antxe ipinteko asmoz.

Illobi buruan izki polit eta garbiz idatzita azpian, lurpean, egoana ren izena irakurri eban otoiika belauniko egoan emakumearen atzean burutsik eta zutunik aurkitzen zan gazteak: «IRA ZABAL ETA BADIOLA TAR EUSEBIO UMETXOA, 1931 gn Abenduan jaio zan. 1937 gn Jorrraila ren 26 an il zan».

Biotz-ikaraz eta dardarka irakurri eban gazte arek.

Belauniko egoana emakumea zan, 60 urte ingururuko ule zuriridun andre arpegi tximurra. Bera ez zan konturatu inor atzean ba egoan be, eta otoiika jarraitu nai eban.

Baiña atzean egoan gaztea bera asi jakon berbetan, itaun auxe egi nez:

«Umetxo ori zer zan zuretzat, andre ona? Esaidazu mesedez».

—*Neure semelxo*a zan —erantzun eutsan emakumeak, barriri be negarrari gogor emonez.

Orduan mutil gazteak, berak be negarrari eta zotini eutsi eziñik:

«Ama!, ene amatxo maitea!, umetxo ori neu naz, or illobian lur peratuta dagonaren gorpua beste umeren batena da» esaten asi eta jarraitu eban.

Zelan izan leiteke ori?, itanduko daustazu eta ona emen nire eran tzuna.

Zu Gernika ra joan ziñan eguerdi-ostean beste astelen askotan lez etxerako bear ziran gauzaren batzuk erostera.

Gero, laurak inguruan egazkiñak asi ziran errezkadan gure gainera etorten eta euren korotz eriotz-ekarleak Gernika inguruetan botaten ekin eutsen ezdakiz zenbat ordutan.

Lerkai edo bona orreitako bat gure etxera jausi zan eta su-emoille edo erretzalletakoa zanez, gure basetxe polita ordu erdi baino lenago dana erreta kiskalduta egoan.

Emakumeak orduan itandu eutsan:

«—Eta zeu, nire semea ba'zara, zelan su-artetik igesi joan ziñan? Ez zengozan etxe-barruan txori baltzok zeru gainean agertu ziranean?».

«Ez, txori madarikatu areik urreratu-orduko landa batera iges eginda nengoan ni bedar-artean ezunda.

Neure begiokaz geure basetxe ederra dana apurtuta, suak kiskal duta ikusi nebanean, negarrari emon neutson eta nora jo edo zer egin ez nenkiala aurkitu nintzan.

Gernika'tik igesika etozan gizon, andra eta umeak deadarrez eta garrizika, bildur-ikarak eraginda-edo.

Euren artean atzerritar batzuk be ba-etozan. Euretari batek es kutik artu eta berea zan berezibil edo kotxe baten sartu nindun eta an dik iru edo lau egunera kotxe ta guzti Santurtze n itxasontzi, batera sartu giñan bera ta ni.

Andik Frantzi'ra, ain zuzen be ango Euzkadi lurraldera, Ustaritze eritxo politera.

Orregaitik euskera gozoa ez dot aaztu eta euskeraz diardut ordutik onako nire joan-etorriak zuri esaten.

Zein izan leiken or nire izenagaz luperatuta dagona?

Eztzun nebana esango dautzut.

Gure etxea erreten asi zanean egazkiñen bildurrez igesika etozanen artean nire adiñeko mutilxoak ei ziran batzuk. Euretaiko bat konturatu be egin barik erreten egoan etxe-ondora gelegi urreratu eta bertanbera su ikaragarri arek eldu eta antxe inok be ez ezagutzeko eran itxi ei eban.

Gero zuk, eldu ziñanean, dana erreta egoana zeure semetxo zala koan, Muxika ko eleizan illetak, aingeru-illetak, egin-ondoren lurra emon ei zeuntson.

Ni emendik Frantzi'ra eroan ninduana oso gizon ona izan da niretzat, baita bere etxeko guztiak be.

Neu be etxeko lez euki nabe eta eurokaitik izan ez ba litz nigaz zer izango zan ez dakit». Ezin eban sinistu emakumeak mutil gazteak esaten ebana, baiña alako baten bere semeak besapean orainen aundi-samar bat eukala gogora etorri jakon, eta bere semea zan ala ez ziur jaki teko, mutillak orixe erakutsi bearko eutsan.

—Parkatu egidazu, gazte, baiña ezin dot sinistu esaten daustazun guztia, ordutik ona urte askotxo igaro dira ta.

Erantzi egizu, mesedez, gaineko jakea, baita azpiko arkontarea be, zure eskumaldeko besapea billoizik ikusi nai neuke-ta.

Emakumeak agindu lez erantzi zituan gazteak bere jantziak, soñiaren goi-aldea billoizik jarri-arte.

An agiri zan mutillak jaiotzatik eukan besapeko oraiñena.

—Bai zeu zara nire seme Eusebio. Orain argi dakust. Zeu zara nire semetxo maitea, galdutzat ainbeste urtez euki zaitudana.

Ekatzu mozu bero bero bat. Erdu, ba neure besoetara...

Baiña itzok esanaz batera lurrera jausi zan emakume gaixoa eta ezer geiago ez eben esan bere ezpanak.

—«Bai neu nozu zuk galdutzat ainbeste urtez ikusi ez dozun Eusebio, neu Gernika Euzkadi ko uririk maiteena doixarrak eta eurekaz alkartuta egozan gure etsai gaiztoak erre ta apurtu eben egu nean zure albotik urriñeko lurraldetara joan bearrean aurkitu nintzan zure semetxo.

Jagi zaitte, ba, besarkada eta mosu ori zeuk eskatu daustazun lez emon daizudan.

Baiña Emakumea ez zan jagi, ezin jagi ezelan be, semea barriri ikusteagaz eta benetan bere semea zala jakiteagaz, leendik makal ebi llen ama aren biotzak ezin eroan eta jasan izan eban gitxien uste eban nean eldu jakon zartada edo mallukada ain gogorra.

Olakoxe ondorenak dakarrez gudak, olako ondorenak pilloka ekarri ebazan Gernika gure erri deuna Ierkai edo bondaz erreta izteak.

Zenbat negar eta zenbat umezurtz Gernika erretearen ondoren!

IZTEGIA

Azkue'ri Jarraitzen (IV)

Itxas maillu	Martillo de mar.	Parritxa	= Sardiña. Parrocha.
Itxas orrats	Pez aguja.	Patxikornia	= Pez de raw.
Itxas otso	= Tintoleta. Marrajo, tiburon.	Perpeluste	Dorada.
Itxas oillo	Gallineta.	Peskit	Durdo.
Itxas potsu	<i>Lanpua. Lilxa.</i> Palometa blanca.	Pitarrosa	<i>Liza Txikia.</i>
Itxas zaldi	= Caballo de mar.	Polaka	<i>Kolayua.</i>
Kapelan	Barbada, carajuelos.	Pospolu	<i>Ao-laTza.</i> Ababurda, mollareta.
Kardia	<i>Gardia.</i> Boquidulce, ganabota.	Putxano	Arete, rubio.
Katuarraina	Mielga.	Salbiya	<i>Berbel, salpiya.</i> Salpa, salema. «Boops, salpa».
Kokarta	Sardineta.	Sardiña igarra	Arenque.
Kollako	= <i>Buslanballza, txopa.</i> Chopa dorada, oblada.	Saubiya	Boa, boba. «Boops boops».
Kurru-Kurru	<i>Arraingorri, burriyua, neskazarra.</i> Escacho, gallina, garneo, trigla.	Sola sola	Suela.
Lamparda	<i>Lanpria.</i> Lanprea marina.	Sautarro	Dorada.
Larlotza	= Cazon.	Tolla	= <i>Katuarraina.</i> Callado. Cazon, mozueta.
Luxarra	= Ollaca.	Txiritu	Doncella.
Maillu arrain	= Pez martillo.	Txistu	= Lucio.
Makael	= <i>Makarela. Betandi.</i>	Txitxare	Cria de lamprea.
Martina	= <i>Mutxu Martin.</i> San Martin, gallo frances.	Txo	<i>Muxarra.</i> Chopa, pañoso, sargo.
Mastrana	= Lotza. Brotola de fango.	Txori arrain	<i>Ega arrain.</i> Juriola, pez volador.
Miarrai	= <i>Lenguadua, zola.</i> Lenguado, suela, perdiz de mar.	Turbota	<i>Errebolua.</i> Rodaballo, sollo.
Mujoi	<i>Mujoya.</i> Mujarra, pardo, sargo.	Tutxuela	= Maruca, barruenda, pez de bacalao. «Molva Molva».
Mutxu martina	<i>Marliña.</i> Pez San Martin.	Uerba	<i>Betandi.</i> Caballa.
Ollaka	Cantara.	Ugotso	Esturion.
Ondaleko auntzaraina	= Cabra de hondura.	Urre arrain	Dorada.
Ortz errosel	= Denton.	Urrezko arrain	Dorada.
		Ursuge. Usuge	= Dragon. Primita.
		Zabalo	Platusa.

ZUBIKARAI'RI OARRAK

ZER aldizkariko 29.zenbakiko IZTEGIAN (6.eta 7.orr.) onako zerok dakusdaz:

- 1) Ondarrutarren aozkatzeraren transkripapen ezberdiña.
- 2) Itz batzuk -a ta guzti jarrita.
- 3) Azkuek esanikoa gogotan eukitzeza edo.
- 4) Esanai zeazgabetxuak.
- 5) Ainbat otsizen, utsik aditzatzat jarrita.
- 6) Inprentautsak edo.
- 7) Ondarrutarrek ez erabili, ez ezagutu ere egiten ez dituen zenbait itz.
- 8) Erabili ez badira erabiltzen ere, iztegietan jadanik jasoriko ainbat itz.

IZTEGIA

- 1) Ondarrutarren aozkatzeraren transkribapen ezberdiak: a) baturantza transkripzioa
b) errikeri-transkripzioa

Baturantza-transkribapena:

Ondarrutarrek:

Ondarrun
A(i)xe o(i)xal
alatin
amai ez emon
anka eiñ
ari meie ((arixe meie)???)
atxarrañ
bazkaldai (erabiltzekotan)
besiuti ???
brixak urten
enplasta(u)
erla(i)xi
erramolai

"IZTEGIA"n:

Ondarroan
aize oial
alatean
amari ez emon
anka egin
ari meia (mea, ez ba?)
atxarrain
bazkaldari
besiute ("besiguta" ez ete da?)
bri(e)ak urten ((e) au erratatzat jota)
enplastatu
erlaizea (ez ete da "erlaiza? Esan: "erlaxak")
erramulari

b) Errikeri-transkripzioa:

"IZTEGIA"n

amure emon
ardau diru (1)
ari meia
atzaparra
erramu (euskarazko azalpenaren arauz)
(erria)

Baturantzazkoaz litzakez:

amor *emon*, amore emon
ardauaren diru
ari mea
atzamarra
erramuA (arraunA agertzen da, ba)
erriatu (enplastatu lez)

* ❄️ ❄️

- 2) Ez dagokien itzei "a" jarri: a) agirian
b) azpiegituran

a) agirian:

Itza:

me
atzapar
(azartón ?
bolintx
burutik berako
erlaize

"IZTEGIA"n:

meia
atzaparra
azartona)
bolintxa
burutik berakoa
erlaizea

b) azpiegituran:

Ondarrutarrek:

erru (erro -a = erru
(dardaraku=el flan; baiña

"IZTEGIA"n:

erru
dardarakua, -a birritan jarrita...)

* ❄️ ❄️

(JARRAITZEKO)

- (1) "Ardau diru" barik, "ardaun diru". Kasu da, onela esanda, ondarrutarrek eurek ere ez leukela aittuko. Iztegian sartzekota:
ardaun diru.

AURRERA

Aspaldian, bai etxe barruan, bai enparantza ta kaleetan, bai, ta izparringi, irrati ta alde guztietan, negarotsa baño besterik ez da entzuten: dana doa txarto, emen ez dago zer egiñik. Askoak diñoe: len obeto gengozan, zelan ete gure etorkizuna?

* * *

Au da gure erriarentzak galgarririk aundiena: Itxaropenik eza, itxaropena galtzea.

Gauzak txarto egon arren, oraindiño ez dago eurak konpondu eziñik.

Euskalerriak, kondairan zear, une txarrago ta larriagoak izan ditu, bai orixe, baiña danak gaindu ditu, beti garaille urten dau.

* * *

Begira orain gaztedi ederraren indarrari, ume guztien poztasunari, gure fededunen itxaropen bulartsuari ta euskaldun geienen jatorrizko lengi-iletasunari ta guzti orreikaz ez dago bildurrik. Guztiok alkarturik, ez dago eziñik.

Lentxuago edo gerotxuago aro txar onetatik urtengo dogula? Bai, ez dago, eziñik. Ezpai barik bizi.

* * *

Danok negarti biurtzen ba'- erreka burura eta an bake bakean gara, binbili, bonbolo, gerago ta beerrago jausiko gara. ipinten ditu bere arrautzatxuak.

Ezezkortasuna erantsikor, esarrikor eta kutsukorra da. Ezezkortarren negar ta aienak beti entzutean inguruko danak ezezkor biurtzen dira.

Bardin jasoten da baiezkortasunagaz. Gizon baietzkorrak ingurukoak baietzkor biurtuten ditu.

* * *

Gure erriaren une gogor onetan, edestiari begiratuaz, agintari, eliza-jakitun, idazlari etb.etab, baietzkor biur bear gara, erri samindu guzti onen biotzetan itxaropen argia ixio-tzeko.

Gaurko gure erriaren gaixotasunik aundiena, ezezkortasuna dogu eta orregaitik, asperturik erria, ardurabakotuten asi jaku.

* * *

Gogoratu ekaitzaren ondoren beti baretasuna elduten dala.

Orretarako arrankariaren antzera jokatu bear dogu. Amorraña, bere arrautzatxuak erreka buruan ipiñi nairik, mugiltzen da goitik beeruntz datorren ur aundi indartsuan, eta, aspertu baga goruntz eta goruntz diardu, nekez ta lanez, eta eten bagako bultzakadakaz, eltzen da azkenez,

Amorraifiak bere lana egiten dau bere barruan jatorrizko indar bat somatuten daualako.

Guk be geure barruan, sakon-sakon indar bat sartu bear dogu. Indar ori itxaropena da.

Ba dakigu bakoitzat indar bat dogula, gure indarra banandu bearrean bestearengaz alkartu bear dogu.

Ez ibili norberaren eritxien billa, baiña bai guztientzat ona dana billa-tu, indar guztiak alkartu eta, Jauna bera gaugaz dogula ez dago eziñik.

* * *

II ta erre ta triskatuaz, ez dogu Euskalerra ganorazkorik egingo, alkar besarkatu ta gure didar bakarra auxe izan daitela: Bai alkartasunari, bai itxaropenari, bai maitasunari, bai gure erriari bai, bai ta beti bai.

Orain dogu erea euskalerra eder bat egiteko. Gora biotzak. Argi begiak. Irrintzi mendi ta arroetan %: geurea da garaipena, geurea lana, guerea erri dana.

Goazen lan bakotasun, txirotasun ta griña txar guztien erreka aundi galgarriaren barrutik bultza egiñez udabarri ederrera.

ZAR-GAZTE'k

EIZTARI TREBEA

Mutil bat urten zan, bein, eizera. Koba andi bat eukan mendi arek, eta an bizi zan zazpi buruko irensugea. Kris-tau bat bear eban, egunero, irensuge gosetiak jateko.

Zotzak egiten ebezan errian, orregaitik, eta zotzak jotako kristaua bidaltzen eben irensugearengana. Bertoko erregek, irensugea akaatzen eban gizona, bere alabagaz ezkonduko ebala, agindu eban.

ERREGEREN ALABA

Eta mutil eiztaria mendira joan zan egunean, erregeren alabari egokitu jakon ara joatea. An egoan gaixoa kobaren aurrean, bildurrez kil-kil, irensugea noz urtengo zain.

Lakari bat urrez eukan beragaz, aren orde z gura bazan, areri emoteko. Eta eiztariak era errukarri orretan aurkitu ebanean, esan eutson:

Jarri, neure atzean.

Andik gerozeago irensugeak kobatik urten, eta esan eutson eiztariari:

Ekarri, egik ire atzean dagoan ori.

—Ez..., ez joat emongo...!

—Biok bat jango zaituet, gero...!

Etor..., gura ba'dok!

Eta asi zan irensugea kobatik urtetan, sekulako zarata eta orroaz. Eiztariak, orduan, bere txakur bizkorak axaatu ebazan. Lau buru kendu ei eutsoezen txakurrak; eta eiztariak beste irurak bere eskupetaz.

Zazpi buruai miiñak kendu eutsezan, orduan, mutillak, eta erregeren alabari itandu eutson:

Zenbat soiñeko daukazuz gaiñean...?

Zazpi...

Emongo daustazu zazpi ertzen zati txiki bana...?

Bai...! Pozik emon be...

IKAZKIN MALTZURRA

Mutillak zati bakotxaz miin bat batu ei eban, orduan; eta eizera joan zan barrero, zazpi miiñok beragaz eroanik.

Ikazkin bat ikusi eban gerora, irensugearen buruak jo ta jo. Eta berak il egin ebala irensugea esanez, erregeren jauregira joan zan ikazkiña bere zazpi buruakaz.

Danak siñistu eutsoen ikazkiñari; eta erregek bere alabagaz eskontzeko artu eban, eta jai aundia antolatu eban.

POSTURA

Basoan egoan, bitartean, eiztaria bere txakurragaz. Eta txakurdun beste lagun bat topaurik, txakur biotatik zein zan bizkorrago, egin eben postura. Eta esan eutson eiztariak bere txakurrari:

—Oa ariñeketan erregeren jauregira, eta ekarri egik, zoli, mai gaiñeko salda-katillua.

Eta beste gizon arek bereari:

—Oa arin-arin, eta ekarri egik ona lenen beteten dan bas-ardaoa.

Laster ekarri eban eiztariaren txakurrak bere salda-katillua, eta bat bere ixuri barik gaiñera. Ekarri e'an bes-tearen txakurrak be basardaoa, baiña bidean dana ustuta.

Erregeak bere maiko salda ta ardoak txakurrak eroiazela ikusirik, bere mutillak bidaldu ebazan, euren atzetik. Eiztariaren mendira eldurik, gizona atxitu ta erregeren aurrera eroan eben.

ARPEGIZ-ARPEGI

Erregek eiztaria gizon bizkortzat artu, ta maiera eroan eban bazkaltzera. An ei egoan ikazkiña be, zelan ekaatu eban irensugea, esan eta esan; eta zer ori obeto erakustearren, aren zazpi buruak agertzen eutsezan maikideai. Eiztariak esan eban, orduan:

Ik ezagutu dok miin bako bururik...?

Berbok entzun..., maiatik altzu, ta anka egin eban ikazkiñak. Aren ingurukoak eutsi baiña, ta berton geldierazo eben.

Eiztariak bere zazpi miiñak euren soiñeko zatiakaz bat atara gero, ta erregeren alabari erakutsi ta itaundu eutson:

Erregin gazte, ezagututen dozuz oneik...?

Bai, mutil bai...!

Orrek orrela, ikazkin maltzurra erriko plazan erre egin eben. Eiztaria, barriz, erregeren alabaz ezkondu zan.

ESTONBA'tar Manuel'ek

MANUEL IRADIER

Euskaldunak, lapurditarrak batez be topau la landu eben Terranoba ko ugarte. Prantzi ko erregea euren jau na, zala onek artu eban beretzat lurralde aberatsa.

Bizkai ta Gipuzkoa ko euskaldunak topau ta landu ebezen Canarias ko ugarteak. Eta Gaztelako erregea zala euren jauna, ta onek artu ebazan beretzat ugarte ederrak.

Era berean, Manuel Iradier ek aurkitu, ikustatu ta ikertu eban Guinea ko lurraldea. Eta Espaiñako erregea zala aren fauna, onek beretzat artu eban.

GAZTEZAROA

Gasteizen jaio zan Iradier, 1854'an.

Umetan argitu jakon irudimena. Otsandiko egin ziran, urte areetan, Stanley ya Levingston en izenak, Aprikan sekulako lurralde bitxiak aurkitu ebezelako.

A reen liburu ta paper guztiak irakurri bakarrik ez, iruntsi be egiten ebazan gure gazteak. Gero, solorik solo ebillen landare ta momorro bitxien billa.

Eta asmo bero bat sartu jakon: bera be lur barri-billa astea. Txango au otu jakon: Aprikako be-musturretik asi, ta goiko tontorreraino eltzea. Stanley ta Levingston ek, eurok biok bat be, ez eben oraindiño alango bidaldirik egin.

DEIA

Gertaera onek zabaldu eutsen gure gazteari bere bizi ko bidea. Stanley Gasteiz en egoala, esan eutsen batek. Orduan indarrean egoan bigarren karlistaldiko guduaren izperkari lez etorren.

Bai...? Arengana jo eban bereala. Ondo artu eben alkar. Arin ikusi eban Stanley andiak gaztearen uren-aria. Eta aolku au emon eutsen:

Ara: lurralde bakarra dago Aprika osoan oraindik inork ikusi ta ikertu ez dauna: Guinea ko lurraldea: orra or zure eginkizuna.

Andik laster Isabel Urkiola gaztearekin ezkondu, eta a ta aren aizta Teresa gaz batera arantza abiatu zan.

ELOBEY

Guinea ko itsas-kolkoan dagoan Elobey ugartean itzi ebezan itsasontziak. Ikustoki edo obserbatorio bat egin eben bertan. An artzen ebezen euri, bero, ezo ta giroen neurriak aretarako eroien tresna berezien bidez.

Iru ordutik iru ordutara egiten ebezen neurketa oneek; eta liburu andi bat bete eben euren marraz. Oneek dira lur-gerri edo ekuadorren inoiz egindako lenengo giro-ikerketak,

Iradier ek andrazkoak lan orretan itzi, baltz baten la gun txalupan sartu, ta Muni ko ibaiaz gora abiatu zan. Okume edo kaoba-andiko baso bakarrik jazten ebezen uren ertzak. Ez egoan an ez biderik, ez etxerik. Soillune bat ikusi, alako baten, ta an lurreratu ziran.

Laster agertu zan erritxu bat. Iradier en erregalu, be gitarte ta itz gozoak areen biotza irabazi, ta bertan gertatu zan luzaro.

GUINEA

Zurezko esi gogorak inguratzen eban erria, piztien babesgarri. Andrazkoak lantzen ebezan txabolen arteko ortuak. Platanu ta juka landareak bakarrik eukezan ortuak. Basoan ebiltzan gizonak eizean eta kautxu-zugatzan negarra batzen.

A reen oiturak, dantzak, siñiskeriak ta legeak ikasi ondoren, Elobey ra biurtu zan, sekulako momorro, txiribi, suge ta pizti ez ezagunez zamaturik.

Illeroko jokabide eban ori. Muni ko lurralde osoa ikertu eban orrela, ango ibai ta mendien neurriak artuz, mapak egiñez, eta belar eta piztien mota guztiak jasoz.

A ndik iru urtera, tropiku-sukarraren gatxak jo eban guztiak. Eta etxera biurtu ziran. Madrid eko «Sociedad Geografica» k argitaratu ebazan aren lan eta mapak. Eta aren ostu, landare, momorro, txiribi, suge ta piztien mota barriak munduko ikustoki edo museotara zabaldu ziran. Bardin zabaldu zan aren milla baiño orrialde geia go ebazan «Africa tropical» liburu be.

RIO MUNI

Andik zazpi urtera, biurtu zan barriri Guinea ra, osatuta gero. Lur jota geratu zan. Alemani ta Prantzi ko gudarriak sartuak zengozan orduko berak aurtitutako lurraldetan. Kamerun artuta euken alemanak, Gabon prantzarrak. ta Muni ko lurraldea be artzeko zorian egozan.

Bereala batu zan Muni ko baltzen buruzagiagaz, eta lagun eta bakezko itunak egin ebazan eurakaz. 101 itun izan ziran guztira, 50.000 kilometro lauoko eukezan lurraldean. 300.000 kilometroko lurralde zabala aurkitu, ikustatu ta ikertu eban berak, ta aren seirena bakarrik lortu eban.

Ez zan Iradier Rio Muni ko jaun edo agintari sekulan izan. Beste bateri emon eutsen «marques de Muni» izena. Beste batzuk agindu ta aberastu ziran ango okume ta kakaoen emoitzez.

Iradier isil eta apal itzan 57 urte zituala, itz oneek esan ondoren: Koloni ederra artu dau Espaiñiak neure eskutik, txakur-txiki ta odol-tantorik isuri barik.

UDAKO I KASTA R OA

Igaz bezela, aurtengo garagarillan edo uztaillan ere UDAKO IKASTARO bat izango dogu gure Alkartean, urtean zear ikasi dogunari ikututxo bat emoteko.

MALLAK: 1 - 2 eta 3'gna.

EGUNAK: astelen, astearte, eguazten eta eguenak.

ORDUA 5'etatik - 7'etara
edo

7'etatik - 9'etara,

ORDAÑA: 1.500 pezeta.

Izenak emoteko: Gure Alkartean. Urrutizkiña: 4 23 53 22

Saskinaski

"Selecciones" illerokoa euskeraz

Saskinaski

IRAKURGAI atsegiftak euskera on eta errezean

Saski-naski' k

dakizun euskera apaindu egingo dizu

Saskinaski' k

ikasten ari zeran euskera erreztu egingo dizu

Saskinaski

irakurri, zabaldu

Saskinaski

12 IZKI'koak
fologrgfo

9 IZKI'koak
charla
reloj
ruina

8 IZKI'koak
primavera
mirar/contemplar
coz/pasada

7 IZKI'koak
el mismo
en ningun siNo
posible

6 IZKI'koak
escampar
aparecer
librar

5 IZKI'koak
visible
perder
nochebuena buenas
lambiñ noches

reventar
cocer
carbon
abundante
residuo
sacar
saben

4 IZKI'koak
nuestro
tomar/coger
jcal Tampoco


3 IZKI'koak
lu mismo
I que?
deuda

llama/brasa
meridional•
a alli
lurbio/gris
si
aliento

2 IZKI'koak
no
con, por, cerca
ahi
morir


Erantzuna urrengo zenbakian

LENENGOARI ERANTZUNAK



GORRI


2gna



Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupié eu nosotroj

Zenue nutea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**